

# ¡OJALÁ TE SUICIDES!

Urte asko igaro nituen egiazko Maddi nolakoa zen bilatzen, nire buruarekin liskarrean eta azkenean laguntza behar nuela ohartu nintzen. Nire burua zaintzeko lanketan hasi nintzen aholkatu zidaten psikologo baten laguntzaz eta horretan ari nintzela, lehenaldira jo behar izan nuen gaur egun ditudan arazo asko, nerabezaroan jasandako egoeraren ondorioak baitira. Niretzat, ez da erraza guzti hau kanporatzea, baina neuk bizitakoa transmititzea norbaitentzat lagungarri bada, zentzu bat izango du igarotako guztiak. Bullyinga jasaten hari bazara, irakur ezazu niri gertatutakoa. Agian, aurrera pausu bat emateko baliagarri izango zaizu eta. Hona hemen nerabazaroko Maddiren historia eta gaur egungo Maddiren ikuspuntua.

## NERABEZAROKO MADDI:

Nire lagunek oso argi daukate nolakoa naizen. Egunero gogorarazten didate itxusia naizela, argalegia, txuriegia, nire ilea ez zaiotela gustatzen, niri begiratzeak nazka ematen diela, uste handikoa naizela, ez dudala ezertarako balio... Mina ematen dit entzuteak, baina arrazoi dute; hainbeste aldiz gauza berdinak entzun ondoren guztiz sinetsi ditut. Itxusia naiz eta egia esan dagoeneko ez zait ezertxo ere gustatzen neure itxuraz. Baina uste handikoa? Nola izango naiz uste handikoa? ez daukat ezer onik eta... Kaka bat naiz, bai, kaka bat eta kito!

Urteak daramatzate niri Internet bidez mezu iraingarriak bidaltzen, eskola garaian baztertzen, inguruko jendeari niri buruzko gezurrak esaten, gaizki sentiarazten... Beldurrez egon ohi naiz hurrengo noiz eta zer izango ote den. Birritan, nire sare sozial pertsonaleko pasahitza lapurtu didate eta nire kontuarekin jendeari min egiten ahalegindu dira. Jende mordoa nirekin haserretu da esandakoekin irainduta sentitu direlako. Haien artean gustuko dudan mutila, nola ez... Oraindik ingurukoei azalpenak ematen jarraitzen dut egin ez dudan gauza bati buruz, errua nirea izango balitz moduan.

Bestalde, eskolan, lapurretak ere jasan ditut eta egilea salatutakoan, mehatxatuta eduki nau eskolatik irteten naizen aldiro, zain edukiko dudala esanez. Gainera, irakasleei kontatutakoan, haurren gauzak direla eta kasurik ez egiteko esaten didate, inongo garrantzirik eman gabe. Nik badakit ez direla haurren gauzak eta eskola orduan ez ezik irtendakoan ere amets gaiztoak aurrera jarraitzen du. Hain zuzen, denborak arrazoa eman dit; duela hilabete batzuk, beste neska bati labankada bat eman ziolako erreformatorio batean sartu dute nire mehatxatzailea. Bestalde, etxekeok nire arazoren baten berri jakin izan dutenean, haiek ere haur kontuak direla eta kasurik ez egiteko, txorakeriak direla, nik zerbait gaizki egingo nuela... esaten didate. Ondorioz, ahal dudan guztia gordetzen saiatzen naiz.

Baina gertatutako guztien artean, gogorrena azkenekoa izan da; gelako mahai azpian gutun bat aurkitu dut lau lagunek sinatuta, eta koloreztatutako hizki larriz ondorengo jartzen du: OJALA TE SUICIDES. Zurbil geratu naiz bat-batean, zer egin jakin ezinik eta jazotakoaz inor ohar ez dadin ingurura begiratu gabe zakar ontzira joan eta mila zatitan puskatu dut papera. Gertatutakoaren harira milaka galdera dabilta bueltaka nire buruan: nire buruaz beste egin behar nuke? Hau da amets gaizto honekin amaitzeko modu bakarra? Eta etxekeok zer? Eta benetan maite nauen jendea?... Eztanda egingo dit buruak! Ez dakit negar edo lau haizetara garrasi egin. Guzti honekin amaitu nahi dut

baina beldur naiz, hobe izango da isilik mantentzea. Berriro ere ezer pasa ez balitz moduan jarraitzen ahaleginduko naiz etxekoak ezertaz ohar ez daitezen eta batez ezer ikaskideek nire egoera jasangaitzaren berri jakin ez dezaten. Ez dut nire buruaz beste egiteko ere balio...

#### ORAINGO MADDI:

Garai hartan ahaztu zitzaidan benetan zein nintzen eta orain arte ahaztuta egon naiz. Sinestu egin nituen esaten zizkidaten gauza guztiak eta horren ondorioz nire burua maitatzeari utzi nion. Motxila bat harri koxkorrez betetzen hasi nintzen nerabezaroarekin batera eta 25 urte bete ditudan arte jarraitu dut motxila hori bete eta bete, zama jasanezina bihurtu den arte. Ez nintzen kontziente hain egoera larrira iristearen zergatia garai hartan jasandako bullyingak eragindako beldurretan zegoenik. Psikologoan hastearen erabakia ez zen batere erraza izan, nerabezaroan igarotako egoera horiek inoiz kontatu gabeak nituelako. Baina bere laguntza ezinbestekoa izan zait zama hori gainetik kendu eta berriro ere poliki-poliki nire burua maitatzen hasteko.

Ez utzi denbora igarotzen, zama gehitzen eta arazoak handiagotzen. Geroz eta lehenago egin aurre arazoei, errazagoa da konponbidea. Horrelako egoeraren bat jasaten ari bazara, orain da zure momentua laguntza eskatzeko. Ez isildu, ez zaude bakarrik, zurekin nago! Laguntza behar izan ezkerro, prest gaude egoera horri elkarrekin aurre egiteko! Nondik hasi ez badakizu, hemen uzten dizut kontaktua, idatzi lasai, zure zain gaude. [Info@aingeruoiartzabal.com](mailto:Info@aingeruoiartzabal.com)